

3. SEGMENTAZIOA

Gure proiektua merkatu- nitxo bateri bideratuta dago. Merkatu-nitxoa bezero oso zehatzentzat edo berezientzat dituen segmentua da. Izan ere, hau ez da erosle bakar batek kasu normalean erosiko lukeen produktua. Honek, gure bizitza erraztea ahalbideratzen digu. Hortaz gain, gure egunerokoa kontrolatzen du eta edozein pertsona zein talderentzat prestatutako proiektua dela ziur gaude. Produktu hau enpresa txikientzat ez dago batere prestatuta, langile ugariko enpresentzat baizik. Aipatutakoarekin batera, adibidez, Gasteizen hainbat jarduera egiten dira urtean zehar (kontzertuak, herri kirolak, euskal dantzak... esate baterako), eta jende ugari ibiltzen dira bertan. Horregatik, gure enpresak ez dauka inolako zalantzarik aukera bikaina eta zoragarria izango liratekeela DAILY WATCH erabiltzeko; hain zuzen ere, egoera zein jardueren planifikazio guztiak kontrolpean izateko. Adibidez, emanaldi bat egitear dagoenean eta denboraz ondo ibili behar garenean dena ondo atera dadin. Gure produktua gertaera hau ematen den leku guztietara bideratuta dago. Normalean, aipatutako egoeran, udaletxearen menpe dagoen lekuetan gertatzen da, baina egia da, beste hainbat lekuetan erabili dezakezula, zure etxeko zein lantegiaren lanak prestatzeko esate baterako.